



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EUDELEK JARDUNALDI BAT EGINGO DU, EUSKADIKO UDALAI JAKINARAZTEKO TOKIKO ERREFORMARI BURUZKO LEGEA SARTU DELA INDARREAN

Jardunaldia gaur (urtarrilak 10) ari da egiten Bilboko Euskalduna Jauregian, eta Euskadiko toki erakundeetako 500 pertsona baino gehiago bertaratu dira.

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 10ean. Diputatuen Kongresuan abenduaren 19an onartu ondoren, eta urte amaieran BOEn argitaratu ostean, 2014an sartu da indarrean Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legea. Legearen eragin nagusien gaineko lehenengo hurbilketa egiteko asmoz, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea zabalkunderako jardunaldi bat ari da egiten gaur, bereziki hiru lurraldeetako udal, mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoetako teknikariei zuzenduta. Saioan alkateak eta udal zinegotziak ere izan dira, bai eta Euskadiko beste instituzio batzuetako langileak ere.

Jardunaldia 09:30ean hasi da Eudelen elkarteburu Ibone Bengoetxearen hitzaldiarekin, eta Luciano Parejo, Francisco Velasco eta Rafael Jiménez katedradunen txostenekin jarraituko du; izan ere, arau berriaren ardatz nagusiak izango dituzte hizpide, bai eta euskal esparruan izango dituen ondorioak ere.

Izaera orokorreko lehenengo zabalkundearen ondoren (behin betiko testua onartu eta berehala), ElkarTEak Lege berriaren azterketa juridiko zehatza egingo du, Euskadiko tokiko erakundeen jarduera-eremuetako bakoitzean izango dituen ondorioak aztertzeko.

Aurrekariak

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak egindako lehenengo iragarpenetik, 2012ko uztailetik hain zuzen ere, 2014an indarrean sartu den arte, urte eta erdi iraun du Tokiko Administrazioa erreformatzeko arau berria izapidetzeko prozesuak. Halaber, edukiaren azterketa ere konplexua izan da; izan ere, hainbat eta hainbat zirriborro egin dira, eta, azkenean, testuan funtsezko aldaketak izan dira.

Euskadiko Udalen Elkartea 2012ko maiatzean egindako Batzarretik aritu izan da Lege honen azterketan eta jarraipenean lan egiten, proiektu legegilearen iragarpen ofiziala baino hilabete lehenagotik. Izapidetze epean, Eudelek hainbat lan-batzorde antolatu ditu udaletako teknikari eta politikariek, eta, ondoren, balorazioak eskumena duten erakunde guztiei bidali dizkie: Euskadiko tokiko erakundeei, Eusko Jaurlaritzari, hiru lurraldeetako Foru Aldundiei, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioari, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioari (FEMP) eta Kongresuko nahiz Senatuko talde politikoei.

-
- **Jardunaldiaren izenburua:** *“Lehen hurbilpena Tokiko Administrazioaren Arrazionalizaziorako eta Iraunkortasunerako Legera”.*

Ostirala, 2014ko urtarrilaren 10a, Bilboko Euskalduna Jauregia.

- **Irekiera** Ibone Bengoetxea. EUDELen elkarteburua.
- Toki Araubideko Oinarrien Legetik Tokiko Administrazioaren Arrazionalizaziorako eta Iraunkortasunerako Legera: **eredu aldaketa**.

Luciano Parejo Alfonso. Zuzenbide Administratiboko katedraduna. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea.

- **Eskumenak eta udal zerbitzuen prestazioa** Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legera.

Francisco Velasco Caballero. Zuzenbide Administratiboko katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

- **Tokiko erreforma Euskadiko erakunde sisteman.**

Rafael Jiménez Asensio. Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea. Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politikoen Fakultatea.